

Pertsonaiak

M

alenkoniatsu nagusia Marcelek beharko luke baina ez da, beharbada denboraren bila abiatuik denbora berpizteko gakoa (madalena, harlauza) aurkitzen duelako, eta ez orainetik atzera begiratzeko, Abaitua bezalako batek egiten duena. *Hamaika pausoko* Abaitua malenkoniak ezgauza uzten du oraineko bizitzarako, horregatik ez da heroi bat, heroiak, Euskal Herrian bestela uste badugu ere, ez baitira iraganean bizi baizik eta orain puntu-puntu, bakarrik ordu horrek eskain dezakeen axolagabeziak; Abaitua gizajoa, aldiz, gauzei (erlojuak, gatzerdiak) eta hitzei loturik bizi da, Urrek esaten zuen bezala, Ortiz de Zaratek egiten dizkion irainak kaka bezala gorderik.


Burura etorri zaizkidan beste malenkoniatsu bi —ez dakit haiek edo inguratzen dituen giroa— *Dama txakurtxodunako* Ana Sergejevna eta Gurov dira. Haien borondatearen kontra bada ere amodio triste batean kateatu dira, eta senar-emazteak utzi gabe aurrera egitea erabakitzen dute atzera egitea egingen balute bezala. Maitasunak ez ditu pozten, ez daude alai, elkarrekin daudenean halako griskara bat dario denari, eta badirudi, azken esaldiak ongi laburtzen duen bezala, iragana datorkiena baino askoz hobea izan dela: “Eta biek argi zeukaten bukaera artean urrun-urrun zegoela eta korapilotsuena eta zailena hasi besterik ez zela egin?”.

Aurrera, zuen sailkapenarekin segitzearren, begira bizi direnekin, aldiz, birekin akordatu naiz: *Zhivago* doktoreko Viktor Komarovsky, *Strelnikov* (filmekoa, nobelan desberdina da) eta *Gatsby* handiarekin. Batak nola besteak etorkizuna dute amets. Sobietarra, perfektua, zurruna, ordenatua, makina bat bezain zehatza *Strelnikov*; ia karikatuta bihurtu zuten filman bere trenarekin Errusia handian aurrera-atzera; lana balore nagusi paraturik, enpresez eta emakume ederrez beterikoa *Gatsby*.


JUDIT FERNANDEZ



Juanjo Olasagarre



Apalategi



Basterrvetxea

Eta orainean bizi direnei buruz Houellebecqen pertsonaiekin akordatu naiz. Orainean bizi dira ezertan ez dutelako sinesten, baina haien inguruan jendeak sinetsi du, areago haiek ere sinetsi dute, eta ondorioz dira edo hutsal ezdeus estupidoak (*Guda zelaia- ren bedatzea*) edo zinikoak (*Plataforma*, *Irla baten ankera*); izan ere, orainean bizitzeko, iraganik eta etorkizunik gabe, mundua dagoenean egonda, hori izan behar duzula iradokitzen digu Houellebecqek batere moralinarik gabe, estupidoa ala zinikoa.

Baina Ripley ez da zinikoa ez eta estupidoa. Ez digu behintzat horrela aurkezten Highsmithek. Ripley orainean baino bizi ezin den amoral da. Zinikoak iraganarekin edo etorkizunarekin sinesturik orainean bizi behar dela ikasi dutenak dira, behartutako malenkoniatsu batzuk edo zapuztutako utopikoak, alegia. Baina Ripley ez; Ripleyk ez dauka iraganik, eta ez du izango, eta etorkizuna hurrengo oraina bermatzeko dirua baino ez da.

Niri Ripley gustatu egiten zait, kristautasunak erraietaraino iltzatu digun erruaren batere zentzurik ez izateaz gainera Schopenhauerren hura ekartzen didalako gogora: “Oraina da bizitzeko modu bakarra, iragana eta etorkizuna ez dira existitzen”.

Onartu beharra dut, hala ere, orainean bizitze horretarako izaerak ez nauela laguntzen, nire ahaleginak ahalegin.

Paradoxikoki, oraina betirako dela gogoratzen digu Borgesek *Funes oroimentsuan* (Juan Garzia Garmendia handiak itzulua). Dena gogoratzen du baina gogoratze horrek ezer ez gogoratzera behartzen du halako betirako orainean bizitzera eramanez, oro gogoratzea oro ahaztea bezala dela, alegia, beste handi hark esan zuen bezala, DANAK eta NADAK. Hobe beraz hirutatik pixka bat, nahiz eta izaeraz malenkoniaria jo. Zoritxarrez, esan beharko nuke, Josi, Ur? ■



Zinikoak iraganarekin edo etorkizunarekin sinesturik orainean bizi behar dela ikasi dutenak dira, behartutako malenkoniatsu batzuk edo zapuztutako utopikoak, alegia

